

Ihesi

ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Tangoa, Maradona, desagerraraziak. Horiek ziren, Buenos Airesera joan aurretik, Vázquez Montalbanen Carvalho detektibeak Argentinaz zeuzkan zantzu bakarrak. Hirurak Buenos Aires ulertzeko ezinbesteko osagaiak diren arren, bidaiaria harrituta lagako duten beste hamaika gauza ere badira urtero mundu osoko milaka pertsona erakartzen dituen hiri honetan. Europarrek pentsatua, kriolloek egina.



Buenos Aires

Ehun auzoen hiria (I)

Pedro de Mendozak fundatu zuen lehenengoz Buenos Aires, 1536an, baina indigenek bost urte beranduago txikitu zuten. Beste 40 pasatu ziren Juan de Garay bizkaitarrak gaur egun Maiatzeko Plaza dagoen lekuan hiria berriro sortu arte. Mendeak igaro arren, Plaza dugu oraindik Buenos Airesen zein Argentinaren bihotza. Han finkatu dira banketxeak eta botere politikoaren egoitzak, Etxe Arrosa gobernuaren egoitza eta, haren aurrean, egungo udaletxea eta kolonia garaietako Kabildoa. Bertan batu ziren, 1945ean, milaka

eta milaka langile xume, atorra bakoak, Peron sostengatzeko. Bertan hasi ziren bueltaka, 1977ko apirilaren 30ean, desagerrarazitako seme-alaben bila zebiltzan Amak. Edozein ostegunetan, arratsaldeko hiru eta erdietan, han ikusiko ditugu, Piramidearen inguruan biraka.

Zirkulutan hazitako hiria

Maiatzeko Plaza da Buenos Aires ezagutzen hasteko abiapuntua, haren inguruko zirkulu zentrokidetan hazi baitzen hiria. Distantzia luzeetako hiria izanik, garraibide

publikoak erabiltzea ezinbestekoa da. Subtea (metroa), trenak, autobusak eta taxiak ditugu aukeran. Lagun ona izan daiteke *Guía-T*, aurrekoen ibilbide guztiak dakartzana. Komenigarria da ere ahalik eta txanpon gehien eramatea; gutxi daude Argentinan.

Bost subte-linea ditugu. Iparraldeko Retiro eta hegoaldeko Constitución auzoak lotzen dituen C linea izan ezik, beste guztiak ekialdetik mendebalderantz doaz, Corrientes edota Rivadavia etorbideei segituz. Rivadavia-koa, A izenekoa, Hego

Bizkaiaren izena eduki zuen metropoli handia

Buenos Aires Handia eskualdeak 12.200.000 biztanle ditu, Argentinako biztanleriaren herena. Horietatik hiru milioi Buenos Aires Hiriburua Federalean bizi dira, eta badira egunero lan egitera sartzen diren beste sei milioi. 1994ko konstituzioari esker, hiriburuak gobernu propioa dauka. 60 legisladorek aukeratzen dute lau urteko gobernu burua izango dena. Orain Franco Macri enpresarioa eta Boca Juniors futbol taldeko presidente ohia dago karguan.

Carlos Menem presidentearen politika neoliberalak pobretutako Buenos Aires, ertaineko klasearentzako eta turistentzako zerbitzu-hiri bihurtu nahi dute gaur

egun. Ereku publikoak zein kultur ekimenak pribatizatzea da Gobernuaren joera. Puerto Madero auzo berria da politika horren adierazle nagusia. Orain dela sei urteko krisaldiaren ondorioak lehen bezain nabariak ez badira ere, muturreko luxua eta pobrezia elkarrekin bizi dira Argentinako hiriburuan.

Jakiek eta lunfardo izeneko hizkera bereziak biztanleen %70 jatorri italiarrekoa dela agerian uzten dute, baina galiziarrek, armeniarrek, arabiarrek, judutarrek eta jakina, euskaldunak ere, asko dira garai batean Nueva Vizcaya izena eduki zuen lurralde honetan. Hain zuzen ere, 1992an Bilborekin anaitu zen.

Amerikako lehenengoa izan zen (1913). XX. mende hasierako tren han dabilta oraindik ere.

Hegoalderantz joatekotan, San Telmo eta Montserrat auzoak osatzen duten alde zaharra aurkituko du bidaiariak. Gazteentzako ostatuak, hotelak, turistentzako jate-txeak eta ohiko antigoaleko dendak ez ezik, hiriko eraikin zaharrenak ere aurkituko ditugu bertan.

Jesuiten aztarnak

Maiatzeko Plazatik metro gutxira Argien Etxadia dago. Auzo honek garrantzi handia izan zuen hiriarren garapenean. XVII. mendean jesuiteri eman zieten, eta haiek altxatutako eraikin ugari han daude orain-

dik. Esaterako, Buenos Aireseko eraikin zaharrena, San Inazio eliza; 1686an hasi ziren egiten. Harririk ez den eskualdean, azpimarratzekoa da biztanleriaren gehiengoa ziren guaraniek erakuntzan erabilitako teknikak, adobearena besteak beste. Harritzekoak, halaber, guaraniek beraiek hiriko defentsarako egindako tunelak, Buenos Aires zaharreko hainbat etxe gotorlekuarekin lotzen zituztenak.

Norabide berari eutsiz, Constitución, Barracas eta La Boca auzoak topatuko ditugu. Astirik badugu, oinez ibiliko gara Colon ibilbidetik edo 9 de Julio etorbidetik; hori omen da munduko zabalena. Colon



A.H. PEREZ DE SAN ROMAN



A.H. PEREZ DE SAN ROMAN

Goian: Maiatzeko Plazako Amak turisten aurrean. Behean: Kongresu Plaza.

ibilbidean meritu handiko eraikinak daude: Aduana, Posta, Ingeniaritza fakultatea. Ibai aldean, lehen merkantziak eta etorkinak hartzen zituen Puerto Madero dago, gaur egun auzo berria eta luxuzkoa.

9 de julio etorbidean berriz, Corrientes eta Maiatzeko etorbideek zeharkatzen duten tokian, banderaren jaiotza eta hiriarren fundazioa gogoraziz, Obeliskoa dago. Askoren ustetan, argentinarren matxismoaren ikur falikoa. Eta handik gertu, hiriko euskal etxeak: Laurak Bat, Vasco-Francés, Eusketxe, Nafarroako etxea. Etxera "itzultzea" ez da aukera txarra bisitaren lehen zatiari akabera emateko. ■

URDAZUBIko lezeak
 Irundik 40 minututara
 Dantxarinetatik 3 km-tara

Argi eta soinuak gidatutako bisitak

Tel.: 00 34 948 59 92 41

Errota

Urte guztian irekia

Euskal Museoa

Miguel de Unamuno plaza 4, 48005 BILBO, Tel.: 94 415 5423
 e-posta: museoa@euskal-museoa.org, www.euskal-museoa.org